

ANDATZA: MENDI BAT GIPUZKOAKO ERROTAK MUGITZEKO

Iñaki SANZ-AZKUE

Mendi magal isilean barrena sartuta, erreka-
sto bat begitatzten da. Landaretzak estaltzen du
paisaia eta erreka sigi-saga egiten du behera.
Lotsati, basopean. Aldeetara harriak daude no-
nahi, bata bestearen gainean pilatuta sarri. De-
na arrunta zen... ikertzera joan ziren adituen be-
giak irakurtzen hasi ziren arte.

Usurbilgo Andatza mendian errota-
rriak daude batean eta bestean.
Hala aurkitu dituzte Aranzadiko
ikertzaileek: 150etik gora, guztiak
26 errotarri harrobitan sakabana-
tuak. Asko goroldioz estaliak dau-
de, erreka ondoan, landaretzaren azpian. Denborak
irentsi du iragana, eta goroldioak 500 urtetan zehar
oso garrantzitsua izan den ofizio bat estali. Doku-
mentuek, alabaina, garbi utzi dute: Gipuzkoako
errotetan, Andatzako errotarriak ziren nagusi. Natu-
rak tapaturikoa paper zaharrek azaleratu dute.

1388koa da Andatzako (Usurbil) errotarri harro-
biak aipatzen dituen dokumentu zaharrena. Hark
azaltzen du, besteak beste, Atxegako jaunek zutela
mendiko harrobiak ustiatzeko eskubidea. Jabetza,
ordea, ez zen haiena. Andatzako lurak Orreagako
kolegiatarenak ziren, eta dokumentu horretan ber-
tan, Martin de Gonzalbizek (Atxegako jauna) eta
Orreagak akordioa sinatu zuten. Izan ere, Andatza
ez zen edozein mendi. Interes handiko lekua zen
hainbat kontu zirela medio; besteak beste, bertatik
ateratzen ziren errotarriak ez zirelako edonolakoak.
Andatzako errotarriak bereziak ziren.

Bereziak izateagatik lortu zuten ospea. Eta ospe
horrek zabaldu zituen Gipuzkoako hainbat errotata-
ra. 1809an, oraindik ere, errotarriak egiten ziren An-
datza mendiko harriarekin eta ezaguna da XIX.
mende hasierako urte horretan, esaterako, Eibar he-

rrira eraman zirela bertako errotarriak.
Dokumentuek erakusten dutenaren
arabera, beraz, Andatzan ia 500 urtez
mantendu zen ofizioa izan zen errota-
rri harginarena. Dozenaka izan ziren
bertan aritu ziren harginak eta milaka,
atera ziren errotarriak. Gaur egun lan-
daretzaren estalpean dauden harriek
hitz egingo balute, harginen zibel soi-
nuez eta mendian behera arrastaka
eramaten ziren errotarriez arituko lira-
teke. Gaur egun mendi basati baten
itxura duena industria txiki baten
bihotza izan zen mendeetan zehar.

ANDATZAREN BEREZITASUNAK

Aranzadi Zientzia Elkarteko Javi Cas-
trok, Yoseba Alonsok eta Asier Agirre-
sarobek 2018an ekin zioten ikerketari,
Usurbilgo Udalaren laguntzari esker.
Bi urte geroago, haien aurkikuntzek
agerian utzi zuten mendia-
ren garrantzia. Hiru gaik egiten zuten benetan
interesgarri eremua: batetik, geologia
bereziak. Bestetik, geologia horrek be-
rak erakarri zuen ofizioak; errotarri
harginarenak, alegia. Eta azkenik, jabe-
tzak. Andatza, arestian aipatu bezala,
Nafarroako Orreagarena zen eta orain-
dik bertan aurkitu daitezkeen muga-
rriek ere hala erakusten dute, nahiz
eta gaur egun Gipuzkoako Foru Aldun-
diarena den. Orreagarena izateak are
eta interesgarriagoa egiten zuen ere-
mua, jabearen eta mendia ustiatuko
zuenaren arteko adostasun dokumen-
tuak, bai eta desadostasun eta auzi do-
kumentu ugari ere egoteko aukera
ematen zuelako.

Bi urteko lanean, hiru ikertzaileek
Orreagaren jabetzakoak ziren lurren
hainbat mugarri aurkitu zituzten, eta
besteak beste, mendian sakabanatuta,
26 errotarri harrobiren aztarnak topa-
tu. Horietan guztietan, 150 errotarriren
arrastoak aztertu zituzten. Javi Castro
ikertzailearen datuen arabera, errotarri
harginen akatsek eragiten zuten, nor-
malean, errotarri bat edo haren zati
bat mendian geratzea, baina bertan
egindako guztien %1 geldituko zen, gu-
txi gorabehera. Mendian egindako
errotarri kopuru handiaren aurkikun-
tzak, beraz, ez zuen zalantzarako inola-



ko tarterik uzten: Andatza errotarriak
ateratzeko eremu oso garrantzitsua
izan zen.


Bertan lan egin zuten errotarri hargi-
nek, alabaina, ez zuten kasualitatez au-
keratu eremua. Bi ezaugarri egiten zu-
ten mendia interesgarri errotarrien
bidez onura ekonomikoak ateratzeko:
geologiak eta kokapenak.

ERROTARRIEN BIHOTZA, ANDATZAKO HARRIA

Herritarrek irina behar izaten zuten bi-
zitzeko, eta laborea ehotzeko, errota
behar. Errota, ordea, habia hutsa zen
errotarririk gabe; errotarria baita, fi-
nean, haren ardatza. Hala, errotarri har-
ginaren ofizioa ez zen nolanahikoa.
Errotarri hargina harria lantzen zuen
langile espezializatua zen. Hura gabe,



Goian, errotarria, Martierreka-
Jauregiko errota zaharren
hondakinen artean. Behean, ahardi
baten gainean eramateko prestaturik
dagoen errotarriaren marrazkia.
Iñaki SANZ-AZKUE - Javi CASTRO



errotak ez zuen funtzionatuko. Hura gabe, irinik ez herritarrek.

Errotarri guztiak, baina, ez ziren berdinak eta errotaren jabeak ondo asko zekien zein zen kalitate onekoa. Kareharriak ez du balio errotarritarako. Hareharriek eta konglomeratuek bai, baina horien artean ere, denak ez dira berdinak. Eta hor, Andatzakoen fama. Andatzako harria baita bertako errotarren bihotza. Benetan ezberdin egin zituen.

Andatza mendian konglomeratua da nagusi. Ondo zementaturiko kuartzoko harri-koskor borobilduz daude osatuta harriak. Gogorrak dira, eta horrek zaildu egiten du haien lanketa, baina errotarako bikainak dira. Ondo ehotzen dute eta denboran zehar asko iraun.

Nahikoa izango da Andatzako errotarria behin ikustea, pertsonak hura eza-gutzeko aurrerantzean. Harri-koskor borobildu eta zuriek beteko dute harria, itxura berezia emanda. Hala, us-tiatzen hasi zirenean, norbaitek segituan ikusiko zuen, inguruan zituen eremuekin alderatuz, hura errotarriak egiteko leku aproposa zela, geologia berezia zuena. Eta hala, urtetan eta urtetan zehar, mendiko harriak hainbat familiaren biziraupena markatu zuen. Errotarri harginak asko izan baitziren Usurbilgo aieka horretan. Horietako asko ere ikerketan identifikatu dituzte. Ezagunenak, Gilisastitarrak eta Ondaldagorritarrak.

Ikertzaileek 260 urtetan zehar izan diren harginak aztertu dituzte beren lanean eta, guztira, 70 errotarri hargin identifikatu. Arestian esan bezala, Gilisasti eta Ondaldagorri abizenak dira nabarmenenak zalantzarik gabe, urte luzez ibili baitziren ofizioan.

Harginek mendiko harriekin egiten zituzten errotarriak, eta horretarako, errotarri harrobiak izaten ziren. Andatzen ikusi izan den moduan, errotarri harrobietara iristeko bidexkak egiten ziren, eta horiek erabiliko zituzten, era berean, harriak mendian behera jaisteko. Doña Maria Migel de Reiztaren 1419ko lur salmenta dokumentu batean irakur daitekeen

Andatza mendian konglomeratua da nagusi. Ondo zementaturiko kuartzozko harri-koskor borobilduz daude osatuta harriak. Gogorrak dira, eta horrek zaildu egiten du haien lanketa, baina errotarako bikainak dira

Errotarriak Andatza menditik Oria ibaira jaitsiko zituzten, hango ontziralekuetan kargatu eta, itsasoa errepide bihurtuta, haiek banatzeko. 50 udalerritan aurkitu dira Andatzako errotarriak erosten zituzten errotak

moduan, saltzaileak harentzat gordetzen zituen errotarri harrobiak ustiatzeko aukerak, baina horrez gain, baita inguruko arboletako adarrak mozteko eskubidea ere. Izan ere, hasieran errotarriak mendian behera jaisteko, ahardiak, sardeak edo urkuluak erabiltzen zituzten, arbolen adarrez eginak. Horrek berak erakusten du errotarri harginaren ofizio gogorra; baldintza horietan jaisten zuten 400 eta 1000 kilo arteko harria, edozein erorketarekin astetako lana puskatzeko arriskuarekin, gainera.

Historian zehar, ordea, lerak ere erabili izan ziren lan horretarako, eta geroago, gurdiak, idi pareak tiratuta.

Orrialde honetan, Erdiko begia landua duen errotarri baten irudia. Bestean, Pedro Texeirak 1636an egindako maparen xehetasuna (eraldaturia) eta dokumentuetan oinarriturik egindako Andatzako errotarri salmenten mapa. Javi CASTRO

Errotarriak Andatza menditik Oria ibaira jaitsiko zituzten, hango ontziralekuetan kargatu eta, itsasoa errepide bihurtuta, haiek banatzeko. Horren berri ematen du, esaterako, 1549ko dokumentu batek, non zehazten den Mapileko ontziralekuan errotarriak kargatu zirela Donibane Lohizunera bideratzeko. Beste batzuk, ordea, Orioko portuan kargatzen ziren itsasontziz garraiatzeko. 1574ko dokumentu batean irakur daiteke nola portu horretan bertan muga-zerga bat ordaindu behar izaten zen. Zerga hori, ondoren, Orioko barraren kontserbazio eta konponketa lanak egiteko erabiltzen zen.

MENDI BAT GIPUZKOAKO ERROTAK MUGITZEN

Andatza mendiko errotarriek mugiarazi zituzten Gipuzkoako errota asko. Hala, oso nabarmena da, esaterako, Hondarribia herriaren kasua. Bertako Jaizkibel mendian hainbat errotarri harrobi aurkitu dira, baina Hondarribiko errota askok Andatzako errotarriak

erabiltzen zituzten, dokumentu zaharrak oinarri hartuta ondorioztatu den moduan. Aranzadi Zientzia Elkarteko ikertzaileek Hondarribiko erroten 1535. eta 1622. urteen arteko Andatzako errotarrien bederatzi erosketa kontratu aurkitu dituzte, esaterako.


Artxiboko lanek erakutsi duten bezala, Andatza mendiak Gipuzkoa osora zabalduriko merkatua asetzen zuen. Guztira, 50 udalerritan aurkitu dira Andatzako errotarriak erosten zituzten errotak eta, horietako askotan, erosketakopuru nahiko altuekin. Gipuzkoatik kanpo, Bizkaian, Araban, Nafarroan eta Lapurdin ere izan ziren erosketak. Dokumentu horiek mendetan izandako salerosketen lagin txiki bat baino ez dute osatuko, baina nahikoa dira Usurbilgo mendiak izan zuen garrantzia azpimarratzeko.

GALDURIKO OFIZIO BATEN AZTARNAK

Andatza mendiko basopean naturak egoskor egin du aurrera. Errotarri harginaren ofizioa ulertu nahi duenak, hala ere, segituan irakurriko du paisaia. Bidexka estuek harriz osaturiko plataforma gisako muntoetara eramaten dute pertsona. Aurkitu dituzte harginek lanean ari zirela deskantsu hartzeko erabiltzen zituzten babesgu-neak ere.

Errotarriak han eta hemen daude sakabanatuta mendian. Gutxi batzuk, osorik utzita. Beste batzuk, hasi berriak, edo amaitu gabeak, besteak. Errotarri erdiak, zartatuak, hautsiak... Andatza museo ireki txiki bat da bertako historia ezagutzeko, eta zergatik ez, Euskal Herrian garrantzi handia izan zuen desagerturiko ofizio baten aztarnak ikusteko. Horregatik, Usurbilgo Udalak PR-GI-216 ibilbidea balizatu du Andatzako harrobietak hainbat gune bisitatu ahal izateko. “Errotarrien bi-dea” du izena.

Harriak erakarri zuen pertsona eta pertsonak harria landu. Eta hor sortu zen gizakiaren eta lurrari eusten zion zorua arteko harremana, komunitate berezi bat sortu zuena, hura moldatuko eta ustiatuko zuena; baina era berean, harri hori gabe ezingo zuena bizi.





Duela hiru urte, ikertzaile talde txiki bat Hondarribiko Jaizkibel mendian barneratu ginen, basope itxian, lahar, iratze eta hareharritzko arroken artetik, erreasto txiki bati segika, errota zahar baten azken arrastoak aurkitu nahian. Kostata, goroldio azpian aurkitu genituen hormaren azken zantzuak. Pareta zaharren atzean, harri biribil baten formak eman zigun arreta. Eskuarekin gainean zuen goroldioa kendu eta han, itsasotik ez oso urrun, harri-koskor zuriz osaturiko hiru errotarri aurkitu genituen. Andatzako errotarriak ziren. Metro gutxira, Jaizkibelgo errotarri harrobi bat zegoen, hareharritzko errotarri erdi batekin.

Oria ibaiaren begiradapean landuriko errotarriek Bidasora arteko bidea egin zuten. Jaizkibelgo hareharritzko arroka artetik doazen urek mugitu zuten Andatzako harria Hondarribiko errota zaharrean. Eta guk, iratze eta goroldio artean, Ondaldagorritarrak irudikatu genituen, Andatza izeneko mendi berezi horretan errotarriak mimos eta maisutasunez zizelkatzen.

